


VILLA EGUZKILORE
D MAILA**ALDAPETA 76**

Frantzisko Urkola, 1923.

Deskribapena

Ilaran antolatutako etxebizitza-multzo interesgarria, eraikinean eta lorategian mehelinak partekatzen dituen tipologiari jarraikiz altxatua. Urkolak mota honetako beste bi lan egin zituen hurbileko La Fe pasealekuan, alde nagusi bakarra dutela fatxada-lerro jarraitua antolatzea, bai espaloian bertan bai lorategi bitartez atzeraemanda. Etxebizitzak mailaz maila egokitzen zaizkio maldari; horretarako, murrua mentsula gainean aurreratzen da, hain zuzen ere lehen solairuko hegala egiten duen moduan. Eraikitzeke modu hori murruz bereizitako kaleko baserrietatik iritsi zen estilo neoeuskaldunera. Aurrekoen profil berarekin, arkitektura-lengoaia desberdina da. Oraingoan, fatxada harlanduz egina da, eta ukitu neogotikoak dauzka baoetan. Horiek, beheko solairuan, ateburuetako jangune txiki batzuk dira, eta goiko solairuan bao bikien kopia suerte bat, erdiko zutabe eta guzti. Erdian horma hobi bat du elementu nagusi. Plano-aldaketetarako, berriz, harrizko inpostak eta erlaitzak dauzka, eta teilatu-hegala oholez estalita dago, estalkiko astazaldien hegala ezkutatzearren.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadako eta murruetako harlandua eta apaindura-erliebeak eta teilatu-hegaleko oholak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.